

JOSE ANTONIO LOIDI-ren OROITZAZ (1916-1999)

Donostia, 99-XI-26

Ustegabeen joan zaigu Jose Antonio Loidi Bizkarrondo jauna, hain idazle eta gizon on bezain langilea, aurtengo (1999) uztailaren 9an. Izatez Errenteriarra zen, 1916ko abuztuaren 22an jaioa.

Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1957. urtean eta euskaltzain ohorezko 1998.ean.

Farmazia ikasketak Madrilen eta Santiagon egina zen 1942an lizentziatu arte. 1943an lortu zuen Irunen Farmazia plaza eta bertan bizi izan da hilarteraino. Baina geroago, 1957an, Optika-Akustika ikasketak egin zituen Madrileko Unibertsitatean. Eta ondotik, Madrilen bertan, 1960an oposizioak eginaz sartu zen Cuerpo de Inspectores Farmacéuticos delako erakundean.

Añamendi argitaletxeak *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*-ren XXV. tomoko (1998) 284-286. orrialdeetan aski zabal eman zituen bere zizitza eta lanei buruzko berriak.

Fabián (Paben) Loidi Peña (1909-1985), Zarautzen 1934. urtean ospatu zen V. Eusko-Olerti egunean, bere "Orio'ko Umezurtza" poemarekin lehen saria irabazi zuen idazle hura aitaren lehengusua zen. Florentino Loidi Iturzaeta orioarra, Jose Antonioren aita, Miguel Primo de Rivera-ren diktadura garaitik Errenterian bizi zen. Han bertan Sociedad Orereta alogeraz hartu zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak Batzokitzat etabiliko zuen etxea eta gerrate aurrean zenbait urtez Florentino Loidi bertako buru izan zen. Beraz, galdu berri dugun gure idazle honek bere euskaltzaletasuna etxetik zekarren. Hogeitamaren bat urte zituen euskara lantzen hasi zenean, bereziki Azkueren *Morfología*, Altuberen *Erderismos* eta Zabala eta Lopez-Mendizabalen gramatikak aztertuz.

Oarso, Orereta, Zeruko Argia, Jakin, Olerti, Antzerti, Uranzu, El Bidasoa, Bidasoan, Egan, Quart creixent, Acofar, Pliegos de Rebotica, Cuadernos de Hidrología, Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria - Boletín de Estudios del Bidasoa eta beste zenbait aldizkaritzan argitaratu zituen bere lanak.

Gipuzkoako Colegio Oficial de Farmacéuticos-en sartu zenetik, etenik gabe jarraitu ditu Bidasoako uren ikerketak. Oroigarria zaigu Consejo General de Colegios Farmacéuticos de España delakoak 1971an eman zion saria bere: *Posible aprovechamiento del agua del río Bidasoa para el abastecimiento de las ciudades de Irún y Fuenterrabía y Caminos de Santiago de Guipúzcoa* zeritzan ikerlanagatik (1975ean erakunde berak argitaratua). Handik zazpi urtera, Espainiako erakunde berak saritu zion: *Farmacofitonia* (1982) zeritzan euskarazko lana.

Bere ogibidezko lan horiez gainera, bizitzan zehar etenik gabe jarraitu zuen euskaraz eta euskarari buruzko lanetan ere. Euskal literaturan ezaguna ez ezik oso nabar-

mena genuen, bai gaiaren aldetik zein hizkuntzaren aldetik. 1954. urtean Euskaltzaindiak antolatu zuen literatura sariketa Yon Etxaidek irabazi zuen *Joanak joan* Etxahunen bizitzaz osaturiko eleberriarekin; bigarren saria *Bide izkutua*, Hugo Wast-en *El camino de las llamas*-en itzulpenak eta hirugarrena Loidiren *Amabost egun Urgain'en* eleberririk eraman zuen.

1955. urtean argitaratu zuen *Amabost egun Urgain'en* deritzan eleberri hori. Urte berean Mitxelenak egin zion *Egan* aldizkariako "Liburuak" sailean goraipenez beteriko erreseña (ikus *Egan*, 1955, 5-6, zenb., 72-74. orr.). Ondorean, eleberri hori bi aldizkarietan zatika emana izan zen, eta berriz liburua osatuz, argitalpen berria izan zuen 1968an. Honi Nikolas Alzola (Anai Berriotxoa) zenak egin zion erreseña, zenbait xehetasun gehituz (ikus *Egan*, 1968, 1-6 zenb., 149-150. orr.). Eleberri hori, Euskal irratian irakurriz ere aurkeztua izan zen.

Lehen argitalpen hari Aingeru Irigaray euskaltzainak egin zion Aintzin Solasa. Non zioen, besteak beste: "Erakuspen eta irakaspen ederra ematen digu J.A. Loidi jaunak *Amabost egun Urgain'en* bere liburuño polita argitaratuz. Ezta itzulikatua, bere burutik aterara baizik, eta Euskaltzaindiak eraginikako konkursoan aipamen berezi bat irabazi duena". Eta hitzaurre horren bukaeran, Irigaray-k, irakurleari honako ohar bat luzatzen zioen: "Eskuetan duzun liburu unek orrialdeetan barrena abiatu bezain laister sumatuko duzu irakurlea, gorapilloa nola desegiten den ikusteko gutizia, eta lenbiziko liburua egin duen norbaitendako ezta gauza apurra. Zorionak, Loidi jauna, eta segi aurrera".


Gotzon Garatek *Jakin*-en idatzi zuen "Euskal polizia eleberrien hasiera" zeritzan saio hartan zioen: "Besteak beste polizia eleberriak izan behar dituen bi alderdi garrantzituak Loidirenak: a) jakinmina piztea eta b) hizkuntza jatorra erabiltzea". Bukaera aldera beste honako hau esango digu: "Loidiren eleberririk goiena jo zuen, euskaraz denez bezainbatean" (ikus *Jakin*, 105. zenb., 1998ko martxo-apirila, 59-60 eta 64-67. orrialdeak).

Esan beharrik ere ez zein harrera ona izan zuen euskaldun irakurleen artean. Garai haretan euskarazko liburuak hain urri zirenez, nik neuk, eskuetan hartu nuen une berean geldiunerik gabe irakurri nuen, eta gerora ere atsegin handiz behin eta berriz euskara jatorra, bizia, aberatsa, ulertzerreza eta argia bezain bikaina edukitzeaz gainera, gaia ere aski berria genuen euskal literaturan. Bere muinean, polizi giroko gaia noski, mugako kontrabandogintzan oinarriturik. Askorentzat, gai hori, lehen aldikoa zen gure euskarazko literaturan. Eta uste hori zabalduz indartu zen gure egunotara arte. Horren lekuko ditugu, hilberria emanez, Donostiako *El Diario Vasco* egunkariak 1999ko uztailearen 10ean eta *Euskaldunon Egunkariak*, handik hiru egunetara, hilaren 13an, eskainitako artikuluak.

Baina, hala ere, inoiz ez dugu ahaztu behar, kontrabandogintzan oinarrituriko eleberria, bere garaian ustez itzulpen gisa hainbeste zer esan eman zuen J.-B. Daskonagerreren *Athea gaizteko oihartzunak*, hor dagoela (Baionan 1870.ean euskaraz argitaratua). Aipatzen dudana, zer esanari buruz, irakur Fr. Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca*, bere bigarren argitalpenean (Arantzazu, 1979) 168-169. orrialdeak. Dena dela, horretaz inork zehatzago aztertu nahiko balu, DAskonagerreren honek Donostian izan zuen elebidun argitalpen bat, 1970. urtean, Rodolfo Bozas Urrutiaren hitzurrez eta gaztelerazko itzulpenez.

Hala ere, ukatu ezinezkoa zaigu Loidiren polizi nobelak gai hortaz gure literaturan izan zuen eragina. Gotzon Garatek bere saiolanean ongi zioen bezala, horri esker, ondotik etorriko zitzaizkigun Mariano Izeta, Txomin Peillen, Xabier Gereño eta beste zenbaiten eleberriak.

Amabost egun Urgain'en, Jose Antonio Loidik bere kontura argitaratu zuen lehen aldikotz, Jose Luis Nabaskuesen irudiak edergarri zituela. Oraindik ez ginen pertsonalki elkar ezagutzen, baina zenbait aleren eskariak egin nizkion cibartar euskaltzaleen artean gomendatuz zabaltzeko eta, hara hor, uste gabeen ale bat igorri zidan bere eskuizkribuzko eskaintzarekin, aldi berean gutun bat ere bai, non zioen: “Jaso nituen jiro postales biali zenizkidazun 256,50 pezeta ta zure azkeneko eskutitza. Milla esker guziokatik; ez didazu mesede txikia egin. Zu bezelako adiskide ta euskaltzale batzueri eskerrak, oso ederki saldu da nere eleberria. Ontaz ez zaizkit ale batzuek besterik gelditzen. Ez dakit entzun dezun, baiña orain, katalanera itzultzen ari dira Barcelona'n, euskeraz dakien katalandar bat eta katalaneraiz dakien euskaldun baten artean, ango argitaltzalle (Alberti) baten aginduz, bere “Nova col·leció lletres” delako, novela katalan sorta batean argitaratzeko asmotan”.



Hor aipatzen zuen katalancrako itzulpena, 1961ean argitaratu zen, *Quinze dies a Urgain* izenburupean. Eta han ere harrera bikaina izan zuen.

Eleberri horren ondotik, Loidiren sorketazkorik, nik dakidanez, “Lana!!” zeritzan ipui gogoangarri bat bada, *Egan* aldizkarian argitaratu zuena (*Egan*, 1980-1981, 1-6 zenbakia, 98-116. orrialdeetan). Baina ordurako eginak zituen beste itzulpen lan batzuk ere. Hara nola: J. Antonio Zunzunegi-ren “Itxasoa...!” (*Egan*, 1957, 3-4 zeb., 162-169. orr.); eta Salvador Espriu-ren “Assaig de Cantic en el temple”, “Abes-ekiañaldia Txa-

donean”, *Obra poética* (Barcelona, 1963), XXXV. or. (ikus itzulpen hontaz N. Alzolak *BSVAP*, 1964, XX, 179. orrialdean zioena). Horiez gainera, Rabindranath Tagore-gandik itzuli zuen “Txori galduak”, 1966an *El Bidasoa* aldizkarian argitaratuko zuena. Bestelako zenbait itzulpen labur ere maiz egin zituen, adibidez, J.M. Castillo Balbas-en *Argazkiak Irun atzo. Fotografías Irún ayer* (1988) zeritzan liburuari J. Caro Barojak gazteleraz egin zion hitzaurrea euskaratuz.

Beste zenbait lan ere argitaratu zituen *El Bidasoa* zeritzan aldizkari hartan. Esate baterako, “*La sol del Bidasoa*” 1955ean, “Euskerismos en el castellano popular irunés” (1956an eta “Evolución histórica de la ciudad de Irún”. Azken hau eta “Irun bere aurrerabidean” (1970) Irungo Udalak sarituak izan ziren.

Irungo Udalak 1969an Farmazia inspektore izendatzeaz, *El Bidasoa* aldizkari hartan azaldu zuen: “Estudio de la potabilidad del agua del río Bidasoa” ikerlana. Ondoko urteetan, haren jarraipenaz, Bidasoako hidrologia analisiez beste zenbait ikerketaren gehigarriak eman zituen. Emilio Navas zenak zehazki jaso eta aipatu zituen lan haiek, beraz ikus: *Irún en el siglo XX (1960-1975)* liburuaren 482. orrialdean.

Jose Antonioren beste liburu aipagarri bat dugu *Euskal Jaiak / Fiestas Euskaras* (1985), Manuel Lekuona zenaren hitzaurreaz, Antoine D’Abbadiek 1881ean sortu zituen jai haien berriak laburki emanak eta ondotik luze eta zehatz Irungoetan mugaturik, agiriak lekuko dituela agertuz.

J.A. Loidi, zenbait ikintzaren artean, Irungo ikastolen sortzaileetariko bat genuen eta baita “Luis de Uranzu” Kultur Taldearena ere. Elkarre hiru sortu zenetik buru egin izan du eta kultur talde horren ardurapean 1984tik ateratzen den *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria - Boletín de Estudios del Bidasoa - Revue d’Études de la Bidassoa* deritzan eman izan ditu bere azken lanak. Merezki du hemen horien berri ematea. Besteak beste, lehen alearen aurkezpenetik hasi eta etenik gabe jarraituz argitara eman baitzuten, bai euskaraz eta bai erdaraz, honako iker lan hauek:

Gure asmoak. Nuestros propósitos. Nos propos (I. alea, 7-17).

Uranzu - Aranzu - Iranzu (I., 23-37. orr.).

El cólera morbo en Irún. Análisis médico-farmacológico (II., 93-132).

Euskararen egoera Irunen 1936a ondoren (III. 221-244).

Formas castellanas en el euskara labortano al norte del Bidasoa (IV., 141-168).

El agua del río Bidasoa (VII., 67-92).

El botánico Lacoisqueta. Las etimologías y otras curiosidades en su obra (IX., 165-188).

El nombre de Irún: su origen, su significado (X., 187-206).

Divagaciones sobre la grafía en la documentación irunesa (XI., 77-104).

Euskara “El Bidasoa” aldizkarian (XII., 115-162).

Hondarribia - Fuenterrabía - Fontarabie. Origen y significado de estos nombres. Fontem Rapidum, Ondarrabia, Fonte arrabia, Onyarbi, Futaravia, Ondarriuiia, Fonteranda, X, X, X, X, (XIII., 185-232).

Presentación pública del grabado practicado en el dintel de la puerta principal de la casa “Beraun” en memoria de Luis Rodríguez Gal, “Luis de Uranzu” (XV., 7-16).

Alarde de San Marcial. Participación de las mujeres (XV., 17-34).

Bukatzeko, bizitza guzian zehar bere katolikotasuna hain zintzo bete zuen gizonak, mundu honi agur egiteko muga unean, hilzorian agertu zelarik idatzi zituen ondoko gogoeta oroigarri hauek:

*Zu, zera, Jauna, Jaun Ona.
Zu nere egile ta euspena,
Zu zera, Jauna, lehen, orain, gero,
Zu beti-beti Zarena.*

*Zuk neri, Jauna, zergatik,
Eman didazu zorionik?
Horgatik, Jauna, ludi hontan nauzu,
Itxoiten hiltzen bizirik.*

*Ez eman, Jauna, zorionik,
Zu maitearren ordainik,
Opa det, Jauna. Zuk ni bezala,
Maite izan, bai Zu, ere nik.*

Juan San Martin